

## 12/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2023KO URRIAREN 24AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### **BERTARATUTAKOAK:**

##### **ALKATEA**

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

##### **ZINEGOTZIAK:**

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)  
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)  
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)  
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)  
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)  
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)  
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)  
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

##### **IDAZKARIA:**

Erika Sagarzazu Camino

##### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2023ko urriaren 24an, arratsaldeko 19:04tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## **I. EBAZPENAK**

### **1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2023ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuraren akta onesteko proposamenaren aurrean, Nuria Carbonell Miranda zinegotziak hitza hartu du eta eskatu du adierazitako aktan ondorengo aldaketa egitea: 5. puntuaren barnean, bederatzigarren orrialdean, 5. lerrokadaren hasieran jasotzen den “Udal korporazio hau” ordez “Gobernu taldea” jasotzea.

Bertaratutako guztiek aho batez onartu dute 2023ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuraren akta, EAJ-PNVk proposatutako aldatetarekin.

## 2.- SEKTORE PUBLIKOAN DIHARDUTEN LANGILEEN ORDAINSARIEN % 0,5EKO IGOERA GEHIGARRIA 2023. URTERAKO ONESTEKO PROPOSAMENA.

Joan den irailaren 28an, Estatistikako Institutu Nazionalak Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren 2023ko iraileko datu aurreratua argitaratu zuen, %3,2koa. Datu horri 2022ko ekitaldiko urteko KPI harmonizatua gehituta, %5,5koa, %6tik gorako batura ateratzen da, eta baldintza hori Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19. BI artikuluan jasotzen da, ordainsarien % 0,5eko gehieneko igoera gehigarria egiteko, 2023-01-01eko ondorioekin. Ildo horretan, eta legeak berak jasotzen duen bezala, Ministro Kontseiluak, 2023ko urriaren 3an egindako bilkuran, gehikuntza hori aplikatzea erabaki du (2023.10. 5 BOE).

Aurrekoa ikusita, EUDELeK (Euskadiko Udalen Elkarteak)b aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsarien igoerei dagokienez egin izan duen bezala, eta 31/2022 Legeak ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, ondorengo gomendioa egin du 2023ko urriaren 5eko zirkularrean:

“...

*1. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.a) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea.*

*Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.*

*2. Aipatutako 31/2022 Legearen 19. BI 2 b) artikuluan xedatutakoari dagokionez, 2023an Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaerarekin lotutako %0,5eko beste igoera gehigarri bat egiteko aukera aurreikusten da. Baina Ministro Kontseiluaren erabaki bidez horri buruz xedatzen dena beteko da, dagokion unean, eta EUDELeK horren guztiaren berri emango dizue, unean-unean.*

...”.

Bestalde, 2023ko urriaren 17ko 198. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publikatu da 96/2023 ebazpena, urriaren 11koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten langileen ordainsarien % 0.5eko igoera gehigarria 2023.urterako onartzen duen Erabakia.

Adierazitako azalpenak eman ondoren, besterik gabe eta eztabaidarik egin gabe, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.a) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea.

**BIGARRENA.** Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**3.- ANOETAKO ETA IRURAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONESTEKO PROPOSAMENA, PREBENTZIO KOMUNITARIO EGITEKO ETA GIZARTE- NAHIZ HEZKUNTZA-ARLOAN ESKU HARTZEKO ETA ARRETA PSIKOSOZIALA ESKAINTZEKO PROGRAMA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO HELBURUA DUEN ZERBITZUA ANOETAKO ETA IRURAKO UDALERRIETAN EMATEKO.**

Anoetako Udalak eta Irurako Udalak, Gizarte Zerbitzuen bidez, *Anoetako eta Irurako udalerrietan prebentzio komunitarioa egiteko eta gizarte- nahiz hezkuntza-arloan esku hartzeko eta arreta psiosoziala eskaintzeko programa garatu eta gauzatzeko helburua duen zerbitzua eskaini nahi dute.*

Aipatu zerbitzua kontratatzeko lizitazio-deialdia Udal bakoitzak bere aldetik egin ordez, elkarrekin egiteko komenigarritasuna ikusten dute, bi udalerrietako errealitate soziala eta arazoak antzekoak izanik, hurbiltasunagatik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik Anoetan ematearen ondorioz bi udalerrietako gazte eta adingabeen arteko harremanak direla eta, bi Udaletako teknikarien arteko harremana zein koordinazioa bermatzea erreza izanik eta bi udalerrien artean eman nahi den zerbitzuaren arteko ordu kopurua kontuan izanik, bi udalerrietan zerbitzua eskainiko duen enpresa bera izatea komenigarria eta onuragarria izango dela ikusi baita.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak (aurrerantzean, SPKL), auto-antolaketaarako ahalmena eta lankidetzak publiko bertikal eta horizontaleko sistemak arautzen ditu 31. artikuluan. Horrenbestez, sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira, kasu honetan, lankidetzak horizontaleko sistemak bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, SPKLaren 5. artikuluan 1. atalean ezarritako baldintzekin eta mugekin, lankidetzak horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren eraginetarako eta bi udalerrietan prebentzio komunitarioa egiteko eta gizarte- eta hezkuntza-arloa eta arreta psiosozialean esku hartzeko zerbitzua garatzeko eta gauzatzeko helburua duen zerbitzuaren kontratazioari dagokionez, Anoetako eta Irurako Udalek konfiantza osoa jartzen dute elkarrengan lizitazioa diseinatzeko, baldintza berezien agiriak idazteko eta kontratua lizitatzeko, proposatzen den hitzarmen honetan eta kontratazio espedientean eta, bereziki, baldintza berezien agirietan adieraziko diren baldintzetan.

Hitzarmen horren sinadura Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoan oinarrituta sinatuko litzateke, hots, Administrazio Publikoek, erakunde publikoek eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin lankidetzak hitzarmenak egiteko aukeran.

Proposatzen den hitzarmenaren arabera, kontratazioari dagokion prestakuntza, esleipen, exekuzio eta amaiera eginkizunak bi Udalei egokituko litzazkieke, horretarako bion arteko beharrezkoa deritzon koordinazioa bermatuz. Horiek horrela, ondorengo moduan banatuko lirateke kontratazio-prozeduraren gaineko eginkizunak Anoetako eta Irurako Udalen artean:

- Justifikazio-memoria, memoria ekonomikoa eta baldintza tekniko berezien agiria: Kontratazio-prozedura hasten eta definitzen duten hiru dokumentu horiek Anoetako eta Irurako udal Gizarte Langileek osatuko lituzkete, elkarlanean.
- Baldintza administratibo berezien agiria: Anoetako Udalak osatuko luke.
- Kontratazio-espeditzea eta bandintza berezien agiriak onartzea: Udal bakoitzeko kontratazio-organoek onartuko lituzkete.
- Kontratatzailearen profila kudeatzea: Irurako Udalak egingo luke.
- Kontratazio-mahaia: Bi Udaletako Alkateek, Idazkari Kontu-hartzaileek eta Gizarte langileek osatuko lukete, horretarako izenda daitezkeen beste langile batzuei kalterik egin gabe.
- Balio-judizioen gaineko txostena: Anoetako eta Irurako udal Gizarte Langileek egingo lukete, elkarlanean.
- Lizitatzailen zalantzak argitzea, dokumentuak eta informazioa kontratatzailearen profilean eskegitzea eta esleipena egin aurretiko dokumentazioa aztertzea: Irurako Udala arduratuko litzateke lan horiek burutzeaz.
- Esleipena: Udal bakoitzeko kontratazio-organoek onartuko lituzkete.
- Exekuzioa: Udal bakoitza bere udalerrian ematen den zerbitzuaren exekuzioaz arduratuko litzateke.
- Ordainketa: Udal bakoitzak bere udalerrian hilean jasotako zerbitzu ordu kopurua ordainduko luke.

Adierazitako azalpenak eman ondoren, besterik gabe eta eztabaidarik egin gabe, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

## **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Onartzea Anoetako eta Irurako Udalen arteko lankidetzeta-hitzarmena, Anoetako eta Irurako udalerrietan prebentzio komunitarioa egiteko eta gizarte- nahiz hezkuntza-arloan esku hartzeko eta arreta psikosoziala eskaintzeko programa garatu eta gauzatzeko helburua duen zerbitzua Anoetako eta Irurako udalerrietan emateko.

**BIGARRENA.** Alkateari ahalordea ematea hitzarmena sinatzeko.

**HIRUGARRENA.** Irurako Udalari eta udal Gizarte Zerbitzuei ebazpen hau jakinaraztea.

## **4.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA EZARTZEKO FUNTSEZKOAK DIREN ELEMENTUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkatetzak, 2023ko urriaren 18an egindako probidentzian azaldutako legez, egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren koefizientea eguneratzea % 1,9 igoz, kontsumo prezioen indizearen neurrian.

Idazkari Kontu-hartzaileak, 2023ko urriaren 18an, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita aldeko Kontu-hartzailetzako txostena ere.

Halaber, data berean ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen:

“ ...

**LEHENENGOA.** *Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren kuota ezartzeko funtsezkoak diren elementuak arautzeko Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:*

TARIFA	KOEFIZIENTEA	ZENBATEKOA
<b>A) Turismoak</b>		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	2,0871158	38,38 euro
9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,0713213	76,18 euro
12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,0715251	126,98 euro
14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,1247169	182,34 euro
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	2,1779087	240,31 euro
20 zaldi fiskaletik gorakoak	2,2309986	300,87 euro
<b>B) Autobusak</b>		
21 plaza baino gutxiagokoak	2,071627	172,57 euro
21etik 50 plazatara bitartekoak	2,071627	245,78 euro
50 plaza baino gehiagokoak	2,071627	307,22 euro
<b>C) Kamioiak</b>		
1.000 kg.-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,0717289	87,59 euro
1.000 kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,0753973	172,88 euro
2.999 kg.tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,071627	245,78 euro
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,071627	307,22 euro
<b>D) Traktoreak</b>		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	1,9655491	34,73 euro
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak.	1,9654472	54,58 euro
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	1,9652434	163,70 euro
<b>E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastran eramandako atoi eta erdi-atoiak</b>		
1.000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	2,0182314	35,66 euro

1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,018639	56,06 euro
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,0185371	168,14 euro
<b>F) Gainerako ibilgailuak</b>		
Ziklomotoreak	2,0731555	9,35 euro
125 cc-ra bitarteko motozikletak	2,0731555	9,35 euro
125cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	2,0712194	15,99 euro
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	2,0718308	32,01 euro
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	2,1248188	65,66 euro
1.000 cc-tik gorako motozikletak	2,124615	131,28 euro

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

...”.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak bere ebazpen-proosamen-txostena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren kuota ezartzeko funtsezkoak diren elementuak arautzeko Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

TARIFA	KOEFIZIENTEA	ZENBATEKOA
<b>A)Turismoak</b>		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	2,0871158	38,38 euro
9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,0713213	76,18 euro
12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,0715251	126,98 euro
14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,1247169	182,34 euro

16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	2,1779087	240,31 euro
20 zaldi fiskaletik gorakoak	2,2309986	300,87 euro
<b>B) Autobusak</b>		
21 plaza baino gutxiagokoak	2,071627	172,57 euro
21etik 50 plazatara bitartekoak	2,071627	245,78 euro
50 plaza baino gehiagokoak	2,071627	307,22 euro
<b>C) Kamioiak</b>		
1.000 kg.-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,0717289	87,59 euro
1.000 kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,0753973	172,88 euro
2.999 kg.tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,071627	245,78 euro
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,071627	307,22 euro
<b>D) Traktoreak</b>		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	1,9655491	34,73 euro
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak.	1,9654472	54,58 euro
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	1,9652434	163,70 euro
<b>E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastran eramandako atoi eta erdi-atoiak</b>		
1.000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	2,0182314	35,66 euro
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,018639	56,06 euro
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,0185371	168,14 euro
<b>F) Gainerako ibilgailuak</b>		
Ziklomotoreak	2,0731555	9,35 euro
125 cc-ra bitarteko motozikletak	2,0731555	9,35 euro
125cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	2,0712194	15,99 euro
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	2,0718308	32,01 euro
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	2,1248188	65,66 euro
1.000 cc-tik gorako motozikletak	2,124615	131,28 euro

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo

egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

## 5.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkatetzak, 2023ko urriaren 18an egindako probidentzian azaldutako legez, egokitze eta beharrezkotzat jotzen du Ondasun Higiezin gainerako Zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzea, izan ere azken urtean ez zen igoerarik burutu eta beharrezkoa ikusten dugu zerga honi %1,9ko gorakada batekin eguneraketa bat ematea.

Idazkari Kontu-hartzaileak, 2023ko urriaren 18an, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gainerako txostena egin zuen, baita aldeko Kontu-hartzailetzako txostena ere.

Halaber, data berean ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen:

“...

**LEHENENGOA.** Ondasun Higiezin gainerako Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

“...

### **ERANSKINA**

1. Hiri Ondasun Higiezin gainerako Zergari aplikagarri zaion karga tasa honako da:
  - a) Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasun hiritarrentzat: % 0,573407604
  - b) gainerako ondasun hiritarrentzat: % 0,186046982
2. Landaluz Ondasun Higiezin gainerako Zergari aplikagarri zaion karga tasa: % 0,9722279
3. Subjektu pasiboarentzat ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, bizileku erabilerako ondasun higiezin bat denean edo hirugarrenei alokairugatik edo erabilerarako lagapenagatik errenergia aplikatuko zaie: % 100

...”.





ANOETAKO  
UDALA

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztzen ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

...”.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak bere ebazpen-proosamen-txostena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

#### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientearen agertzen den ondorengo testuarekin:

“...

#### **ERANSKINA**

4. Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa honako da:

b) Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasun hiritarrentzat: % 0,573407604

b) gainerako ondasun hiritarrentzat: % 0,186046982

5. Landalurreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: % 0,9722279

6. Subjektu pasiboarentzat ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, bizileku erabilerako ondasun higiezin bat denean edo hirugarrenei alokairugatik edo erabilerarako lagapenagatik errenergia aplikatuko zaie: % 100

...”.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

## 6.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkatetzak, 2023ko urriaren 18an egindako probidentzian azaldutako legez, egokitze eta beharrezkotzat jotzen du Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzea, batetik, uztailaren 5eko 15/1989 Foru Araura egokitzeko eta, bestetik, arlo honetan herrian dagoen errealitatera egokitzeko. Horrela, hauek izango lirateke zerga horren inguruan antolatuko diren atalak eta koefizienteak:

ATALA	KOEFIZIENTEA
Orokorra edifizio berriak eraikitzea eta handitzeko obrak	5
Orokorren berdina ez den edozein	3
Nekazal eta/edo abel ustiapenera destinatuak	2,45
BOE eta etxebizitza sozialak eraikitzeako obrak	3,22
Eraikitako ondarearen berregokipen obrak	2
Proiektu teknikorik behar ez duten etxe barruko obrak	0
Etxebizitza eraikuntzen etxeaurreak margotzea	0

Idazkari Kontu-hartzaileak, 2023ko urriaren 18an, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita aldeko Kontu-hartzailetzako txostena ere.

Halaber, data berean ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen:

“ ...

**LEHENENGOA.** *Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:*

“ ...

### **ERANSKINA**

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO KARGA EDO OBRA MOTA	KARGA TASA
<i>Orokorra edifizio berriak eraikitzea eta handitzeko obrak</i>	5
<i>Orokorren berdina ez den edozein</i>	3
<i>Nekazal eta/edo abel ustiapenera destinatuak</i>	2,45
<i>BOE eta etxebizitza sozialak eraikitzeako obrak</i>	3,22
<i>Eraikitako ondarearen berregokipen obrak</i>	2
<i>Proiektu teknikorik behar ez duten etxe barruko obrak</i>	0

<i>Etxebizitza eraikuntzen etxeaurreak margotzea</i>	0
--	---

...”.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

...”.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak bere ebazpen-proosamen-txostena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

“...

### ERANSKINA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO KARGA EDO OBRA MOTA	KARGA TASA
Orokorra edifizio berriak eraikitzea eta handitzeko obrak	5
Orokorren berdina ez den edozein	3
Nekazal eta/edo abel ustiapenera destinatua	2,45
BOE eta etxebizitza sozialak eraikitzeako obrak	3,22
Eraikitako ondarearen berregokipen obrak	2
Proiektu teknikorik behar ez duten etxe barruko obrak	0
Etxebizitza eraikuntzen etxeaurreak margotzea	0

...”.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

## **7.- UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN EXAKZIORAKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkatetzak, 2023ko urriaren 18an egindako probidentzian azaldutako legez, egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du Udalerriko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren exekuziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzea: batetik, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzaileko koefizienteei 1,9 gehituz; bestetik, hainbat onura jaso ondorengo baldintzak betetzen dituzten jarduera ekonomikoetatik, beti ere onura bat baino gehiago izan arren gehienez %60ko hobaria aplikatuz:

<b>JARDUERA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Kooperatibak	%50
Negozio hasi berriak	%50
Enplegua sortzeagatik ( plantilaren %10eko gehikuntza)	%40
%100 Energia berriztagarriak	%50

Idazkari Kontu-hartzaileak, 2023ko urriaren 18an, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita aldeko Kontu-hartzailetzako txostena ere.

Halaber, data berean ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen:

“...  
“

**LEHENENGOA.** Udalerriko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren exakziorako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, ondorengo testuarekin:

- 7. artikulua berria (gerokoek zenbaki korrelatibo berria eskuratuko dute):

“...  
“

### **7. artikulua**

1. *Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hobariak egingo dira:*

a) *Kuotaren 100eko 50eko hobaria kooperatibei, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauaren 26.4 artikulua arabera.*



b) Kuotaren 100eko 50eko hobaria, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenentzat.

Hobaria aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu ez izana. Jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu dela ulertuko da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.

Hobaria aplikatzeko epea 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.b) artikuluan jasotzen den salbuespena amaitu eta bost urte igaro ondoren iraingiko da.

c) Kuotaren 100eko 50eko hobaria enplegua sortzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez bestekoa aurreko zergaldiaren aldean % 10 gehitu badute.

d) Kuotaren 100eko 50eko hobaria, udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta.

Ondorio horietarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean jaso eta halakotzat definitzen direnak dira. Kogenerazio sistemak, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria aldi berean ekoizteko balio duten ekipa edo instalazioak dira.

2. Aurreko 1 apartatuko hobari bat baino gehiago aplikatzea bidezkoa den kasuetan, gehienez ere kuotaren 100eko 60ko hobaria aplikatuko da.

...”.

➤ Eranskina

“...

1.- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra .....1,9

2.- Udalerriko bide publikoen sailkapena.

Kategoriak Indiz.Kod.Kaleak,plazak edo auzoak

Lehenengoa K

A

T

Bigarrena

B

A

Gainerako bideak

K

A

R

Indizea.....1,9

...”.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

...”.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak bere ebazpen-proosamen-txostena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

## EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakzioarako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, ondorengo testuarekin:

➤ 7. artikulua berria (gerokoek zenbaki korrelatibo berria eskuratuko dute):

“... ”

### 7. artikulua

1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hobariak egingo dira:

a) Kuotaren 100eko 50eko hobaria kooperatibei, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauaren 26.4 artikuluaaren arabera.

b) Kuotaren 100eko 50eko hobaria, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenentzat.

Hobaria aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu ez izana. Jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu dela ulertuko da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.

*Hobaria aplikatzeko epea 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.b) artikuluan jasotzen den salbuespena amaitu eta bost urte igaro ondoren iraungiko da.*

*c) Kuotaren 100eko 50eko hobaria enplegua sortzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez bestekoa aurreko zergaldiaren aldean % 10 gehitu badute.*

*d) Kuotaren 100eko 50eko hobaria, udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldintza hauek betetzen dituztenean:*

*- Energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta.*

*Ondorio horietarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean jaso eta halakotzat definitzen direnak dira. Kogenerazio sistemak, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria aldi berean ekoizteko balio duten ekipa edo instalazioak dira.*

*2. Aurreko 1 apartatuko hobari bat baino gehiago aplikatzea bidezkoa den kasuetan, gehienez ere kuotaren 100eko 60ko hobaria aplikatuko da.*

...”.

➤ Eranskina

“ ...

1.- Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra .....1,9

2.- Udalerriko bide publikoen sailkapena.

*Kategoriak Indiz, Kod. Kaleak, plazak edo auzoak*

*Lehenengoa K*

*A*

*T*

*Bigarrena*

*B*

*A*

*Gainerako bideak K*

*A*

*R*

Indizea .....1,9

...”.



ANOETAKO  
UDALA

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

## **8.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA ETA UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkatetzak, 2023ko urriaren 19an egindako probidentzian azaldutako legez, egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasek ordenantza arautzailean aldatzea, Udalak zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta jarduera administratiboak burutzeagatik bere gain hartzen duen defizita murrizteko eta, pixkanaka-pixkanaka, urtero igoera txikiak eginez, zerbitzu publikoen eta jarduera administratiboaren autofinantzaketa lortzeko. Horretarako, 2024ko ekitaldirako, zenbait tasek aldatzea proposatzen du, zehazki:

“...

### ❖ FAXAREN ERABILPENA:

*Egoera aldatu delako eta zerbitzu honen erabilera hutsa delako tasa hau deusezteko egoki ikusten du udalak.*

### ❖ HIRIGINTZA LIZENTZIAK:

*Azken urtean egokitu ez zirenez eta egungo errealitateara egokitzeko honako aldaketak egoki ikusten ditugu:*

- a) Nekazal eta/edo abel ustiapenera destinatzen ez diren obretarako lizentziak, aurrekontuaren arabera:*

<b>AURREKONTUA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<i>3000 euro bitarte</i>	<i>60 €</i>



3.000,01 euro eta 6.000 euro bitarte	%0.02
6.000,01 euro eta 30.000 euro bitarte	%0.017
30.000,01 euro eta 90.000 euro bitarte	%0.014
90.000,01 euro eta 300.000 euro bitarte	%0.012
300.000,01 euro eta 500.000 euro bitarte	%0.011
500.000,01 euro eta 1.000.000 euro bitarte	%0.01
1.000.000,01 eurotik gorako aurrekontua dutenak	%0.0095

b) *Lehen erabileraren lizentzia:*

<b>MOTA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<i>Etxebizitza bakoitzeko</i>	<i>EIOZ gainean %10</i>
<i>Trasteleku bakoitzeko</i>	<i>EIOZ gainean %10</i>
<i>Garaje plaza bakoitzeko</i>	<i>EIOZ gainean %10</i>
<i>Merkatal lokal bakoitzeko</i>	<i>EIOZ gainean %5</i>

c) *Jarduera enpresariala*

<b>MOTA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<i>250 m<sup>2</sup> bitarte</i>	<i>600 €</i>
<i>251 eta 500 m<sup>2</sup> bitarte</i>	<i>900 €</i>
<i>501 eta 1000 m<sup>2</sup> bitarte</i>	<i>1500 €</i>
<i>1001 m<sup>2</sup> aurrera</i>	<i>3000 €</i>

❖ **ZABORBILKETA:**

*Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 11.3 artikuluan aipatzen da lehen aldiz “sortzegatiko ordainketa”. Ordainketa sistema honen arabera hondakina sortzen dutenena izango da hau kudeatzearen kostu ekonomikoari aurre egitearen ardura. Honek esan nahi du udalarentzat ezingo duela hondakinak kudeatzea ekonomikoki defizitarioa izan.*

*Hau lortze bidean batetik hondakinen kudeaketaren gastua murriztu beharko genuke hondakin sorrera gutxitu eta birziklapen datuak igoaz, eta bitartean tasak pixkanaka igo beharko ditugu helburu hori lortzeko.*

*Horregatik hondakinen bilketarako ezarritakoa %5an igoko diegu egoiliarrek helbidetzat dauzkaten etxebizitzei, lokal komertzialak eta zerbitzuei, eta taberna, jatetxe, jolar-elkarte, janaridenda, arraindegi eta antzekoei .*

*Enpresei dagokienez, % 10 igotzea proposatzen da 250 m bitarteko jarduerak dituztenei, % 20a 251 eta 1000m<sup>2</sup> dituztenei eta %35a 1001m<sup>2</sup> gorako jarduera dutenei. Horrela, ingurumen-teknikariak konparazio-txostenean azaltzen duen zenbatekoan defizita murrizteko bidean pausu bat emango dugu.*

❖ **UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

- a) Hesiak, aldamiok, eustagak eta hondakinak edo materialak gordetzeko edukinontziak, edozein kasutan 0,6 € eguneko eta m<sup>2</sup>ko.
- b) Espalioen gainetik etxaldetara iristeko ibilgailuen sarrera eta berauen aparkamendu erreserba

Garaje publiko edo industri edo merkataritza establezimendu	145,75 €
Zerbitzu partikularreko garajeak	72,5 €
Noizik behineko beharraren ondorioz erabilera ezberdinetarako leku erreserba	1,85 €
Garaje kolektiboetan 5 auto baino gehiago sartzen direnean, kotxeko	6,75 €

- c) Feria eta herri festetako postuak: Txozna bezela kontsideratzen ez diren postu guztiak tratera bera izango dute.

Txoznak	39,27 €
Bestelako postuak	5€ m <sup>2</sup> ko

300€ ko fiantza jarri beharko dute udalak jarritako baldintzak bete dituztela ziurtatutakoan itzultzeko; hala nola musika, ordutegia, hondakinen kudeaketa, eta bestelako baldintzak.

- d) Asteroko merkatua: Orain arte zegoen sailkapenak ez dio egungo egoerari erantzute eta egituraketa aldatzea iruditzen zaigu egokiena.

I.sektorea	2 € m <sup>2</sup> ko
I.sektorea eta ziurtagiri ekologikoarekin	1 € m <sup>2</sup> ko
Besteak	4 € m <sup>2</sup> ko

- ❖ **JARDUERA ETA ESTABLEZIMENDUEN IREKITZE-LIZENTZIA EMATEGATIKO TASA:**
- **JARDUERA SAILKATUEN BAIMENA**

<b>MOTA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Gasolindegia	2500
Komertzioak eta almazenak	500
Ostalaritza	
*Jolas aretoak	6000
*Dantza lekuak eta diskotekak	15500
*Bingoak, kasinoak eta apustu etxeak	15500
*Jatetxeak	1500
*Kafetegi eta edaritegiak	1500
Industria	2500
Abeltzaintza eta nekazaritza	250/350
Bestelako instalazioak	300

Lokalen azalera 100m2 gainditu ezker (ostalaritza ezik)	Bikoitza (x2)
Lokalen azalera 200m2 gainditu ezker (ostalaritza ezik)	Hirukoitza (x3)

○ JARDUERA SAILKATUEN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA

MOTA	ZENBATEKOA
Garajea	500
Dendak	500
Zerbitzuak	700
Industria	1000
Abeltzaintza hustiategi txikiak	200
Zentro eta instalazio osagarriak	300
Ostalaritza	1000
*Jatetxeak	1000
*Bestelako edaritegiak (kafe dastaketa eta antzekoak)	1000
Gurtzarako zentroak	1000
Jarduera eskualdatzeagatiko tasak	%30

❖ KULTURA ETA KIROLA:

Tasa batzuk igo dira 2023-2024 ikasturteetan:

- Udal frontoiaren erabilera: 8 €
- Kirol ikastaroak:

IKASTAROA	ZENBATEKOA
Yoga hiruhilabetea (astean behin/astean bitan)	80/160
Tonifikazioa	100
Cycling	100
Crosstraining	100
Zunba	100
Gimnasia 3. Adinekoentzat	90
Gimnasia erritmikoa haurrentzat	45

- Kiroldegiko kantxaren alokairua:

	Haurrak	Gainontzekoak
Abonatuak	5	12
Ez abonatuak	10	20

❖ UDAL LOKALEN ERABILPENA

Orain arte ez zen tasarik kobratzen udal lokalak erabiltzeagatik. Orain, 2024tik aurrera, ura, argia, garbiketa, mantenua, kudeaketa administratiboa eta erabileratik

*eratorritako bestelako gastuei aurre egiteko tasa bat ezartzea beharrezkotzat ikusten dugu, horren gaineko ordenantza arautzailea osatzeaz eta aprobateaz gain.*

*Orduko erabilpena..... 15 euro.*

*...”.*

Idazkari Kontu-hartzaileak, 2023ko urriaren 19an, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita Kontu-hartzailetzako txostena ere. Azken horretan honako ondorioak jaso zituen:

“...

*Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailean eta Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzan egin nahi diren aldaketak legez baliozkoak izateko, beharrezkoa da aldatu beharreko tasen gaineko txosten tekniko-ekonomikoa egitea, 11/1989 Foru Arauaren 24.2. artikulua jasotakoaren arabera.*

*...”.*

Halaber, Alkatetzak proposatutako aldaketei buruzko iritzia emate aldera, Idazkari Kontu-hartzaileak honakoa jasotzen du ere:

“...

➤ **Faxaren erabilpena:** egokitzat jotzen du tasa hori kentzea; izan ere, gaur egun, duela urte batzuk, ez dago fax-zerbitzurik udaletxean.

➤ **Hirigintza-lizentziak:** proposatutako aldaketari buruz egin beharreko memoria ekonomiko-finantzariorik lor daitekeen beste emaitza bat alde batera utzi gabe, egokitzat jotzen da tasaren balio obraren aurrekontuaren edo EIOZren likidazio-balioaren gaineko portzentaje baten arabera ezartzea, sistema horrek obrarekiko tasaren koherentzia handiagoa eta aurrekontu tarteen arteko alde txikiagoa eragiten baitu. Bestalde, enpresa-jarduerengatik kobratu beharreko tasetan egindako aldaketei dagokienez, aldaketa proportzionatutzat eta a priori konpentsatutzat jotzen da.

➤ **Zabor-bilketa:** proposatutako aldaketak 2021etik 2022ra egindako tasaren aldaketa justifikatzen duen motorrari jarraitzen dio; beraz, a priori, koherentetzat jotzen da.

➤ **Jarduera eta establezimenduen irekitze-lizentzia emateagatik tasa:** orain arte jarduera abiatu aurretik aurkeztu beharreko aurretiazko berri ematea edo adierazpen responsablea Euskadiko 3/98 Ingurumen Legeko II eranskinen “B” atalean zerrendatutako kasuetan oinarritzen zen. Lege hori jada ez dago indarrean eta lege berriaren, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen, Eranskinak ez doaz zihozen bat gure ordenantzetan jasotakoarekin. Orain Alkatetzak proposatutako tasak badatoz bat abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta, beraz, printzipioz, proposatutako aldaketari buruz egin beharreko memoria ekonomiko-

*finantzariotik lor daitekeen beste emaitza bat alde batera utzi gabe, egokitzen jotzen dira.*

➤ ***Kultura eta kirola:*** *proposatutako aldaketari buruz egin beharreko memoria ekonomiko-finantzariotik lor daitekeen beste emaitza bat alde batera utzi gabe, udal frontoiaren erabilpena bi eurotan igotzea eta kiroldegiko kantzaren alokairuagatik abonatuerei ere kobratzea, baita ez abonatu helduei bost eurotan igotzea ere, ondo ikusten da, hasiera batean behintzat.*

➤ ***Udal lokalen erabilpena:*** *proposatutako aldaketari buruz egin beharreko memoria ekonomiko-finantzariotik lor daitekeen beste emaitza bat alde batera utzi gabe, Idazkari Kontu-hartzaile honi proposa iruditzen zaio udal lokalen erabilpenagatik tasa bat ezartzea. Aldiz, beharrezkotzat jotzen du horren gaineko ordenantza arautzailea lehenbailehen onartzea.*

➤ ***Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak:*** *egindako aldaketa guztiak tasa aplikatzeko kasuak sinplifikatzera bideratzen dira, gehiegi eta kategorizatzeke zailak baitziren. Hala, tasa bateratu egin da a) kasurako, 7 kasu bereizi bateratu dira feria eta herri festetako postuetan, eta nabarmen erraztu da asteko merkatuarekiko tasaren ezarpena. Horrek guztiak, betiere uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 24.2. artikulua xedatutakoa betetzen badu, kudeaketa eta administrazio-ekonomia hobea ekarriko du, baita subjektu pasiboarentzat argitasun eta gardentasun handiagoa ere.*

...”.

Behin Idazkari Kontu-hartzaileak bere txostenaren edukia irakurtzeaz bukatutakoan, Nuria Carbonell Miranda zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du bere talde politikoa ados dagoela zaborbilketaren inguruko ekonomia zirkularrerako ideiarekin eta xedearekin, baina datu gehiago beharko lituzkeela horren gaineko erabaki arrazoitua hartu ahal izateko; Idazkariak adierazitakoarekin bat eginez, beharrezkoa ikusten duela tasa bakoitzaren gaineko txosten ekonomikoa egitea; eta, informazio horren faltan, ezin duela puntu honen gaineko erabakirik hartu. Hortaz, bozkatzeaz abstenituko dela.

Ondoren, gai-zerrendako puntu honen xede den gaia bozkatu da, lehen proposatu bezala, eta bozketaren emaitza honako hau izan da:

#### EBAZPENA

ALDEKO BOZKAK: Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea), Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea), Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea), Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea), Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea), Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea) eta Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea). Guztira, aldeko 7 bozka.



ANOETAKO  
UDALA

**ABSTENTZIOAK:** Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea), Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea) eta Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea). Guztira, kontrako 3 bozka.

Ondorioz, gehiengoz onartua izan da ondorengoa:

### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Onartzea Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea eta Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza behin-behinean aldatzea, espedientean agertzen den testuarekin.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:22tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

---

Erika Sagarzazu Camino